# Bi mila urte: Euskal Herriaren historia

3 000 000 urte Kristo aurretik — **Historiaurrea** — 3 000 urte Kristo aurretik — **Nekazariak** — 200 urte Kristo aurretik





Historiaurreak milioika urte irauten du; lehen gizon-emakumeekin hasi eta idazkera asmatu zenean bukatzen da, orain dela 5.000 urte: historiaren hasiera da.

Lehen euskaldunak ehiztariak ziren, eta pixkanaka abeltzain eta laborari bihurtu ziren. Nekazaritzarekin, metalak ezagutu zituzten eta herriskak egiten ikasi zuten. Erromatarrak Kristo aurreko 218. urtean iritsi ziren Euskal Herrira.

1600 — **XVII. mendea** — 1700 — **XVIII. mendea** — 1800





Mende honetan, euskaldunon historia Espainiako eta Frantziako erregeekin lotuta dago: mundua korritzen zuten marinelak, lur berriak konkistatzen zituzten gerrariak, itsasontziak erasotzen zituzten piratak... Erregeak ondo, menpekoak miserian.

Errege eta jauntxoen gehiegikeriek matxinadak eragin zituzten. Ideia eta pentsakera berriak sortu ziren Herriak gobernatzerakoan. 1789. urtean (Parisen Frantses Iraultzak sekulako eragina izan zuen mundu osoan, baita Euskal Herrian ere.

## Gogoan izan beharreko urte garrantzitsuak

• **Kristo aurretik**

**Orain dela 3 milioi urte:** lehen gizon-emakumeak.
**500 000. urte inguruan:** ehiztariak eta arrantzaleak.
**80 000. urte inguruan:** nekazariak eta etxegileak.
**3 000. urte inguruan:** merkatariak.
**2 000. eta 1 000. urteetan:** brontzea eta burdina azaldu ziren Euskal Herrian.
**218. urtean:** erromatarrek euskaldunei izen bereziak ezarri zizkieten (baskoiak, barduliarrak, karistiarrak, autrigoiak, akitaniarrak eta beroiak).

• **Kristo ondoren**

**400. urte inguruan:** barbaroak Euskal Herrian.
**410. eta 700. urteetan:** euskaldunak bisigotuen eta frankoen aurka borrokatu ziren.
**711. urtean:** arabiarrak Iberiar penintsulan.
**778. urtean:** Orreagako gudua.
**824. urtean:** Iñigo Ximenez Haritza, lehen euskal erregea.
**999. urtean:** Antso III Handia, euskal erregerik handiena.
**1492. urtean:** Amerika aurkitu zuen Kolonek.
**1512. urtean:** Nafarroako Erresuma Gaztelaren esku.
**1519-1522. urteetan:** Elkanok munduari lehen aldiz bira osoa eman zion. Lurraren biribiltasuna frogatuta geratu zen.
**1789-1799. urteetan:** Frantses Iraultza.
**1805-1814. urteetan:** Napoleon, Europako nagusi.
**1834-1839. urteetan:** Lehen Karlistada.
**1841. urtean:** Industria handia hasi zen Bizkaian.
**1898. urtean:** Espainiar inperio koloniala galdua.
**1901-1902. urteetan:** Bizkaian burdingintza.
**1894. urtean:** EAJ-PNV sortu zuen Sabin Aranak.
**1914-1918 urteetan:** I. Mundu-Gerra.
**1936. urtean:** Franco jeneralaren diktadura hasi zen.
**1939-1945. urte bitartean:** II. Mundu-Gerra.
**1980. urtea:** Eusko Jaurlaritza

200 urte Kristo ondoren — **Jauntxoak eta gerrariak** — 1500 — **Euskaldunak Amerikan** — 1600



Erromatar inperioaren ondotik, euskaldunek tribu edo taldetan banaturik jarraitzen zuten. Baina etsai berriak: bisigotuak, frankoak, arabiarrak...
Jauntxoak, lehen euskal erregeak, gerrak... garai honetakoak dira. Hiri eta eliza handiak eraiki zituzten.



1492. urtean Amerika aurkitu zenetik, mundua irekiagoa eta zabalagoa azaldu zen europearrentzat, baita euskaldunentzat ere. Itsasontzia eta abentura nagusitu ziren. Merkataritza ere (urrea, zilarra, kafea, patata, tabakoa...) iritsiko da Amerikatik Europara.

1800 — **XIX. mendea** — 1900 — **XX. mendea** — 2000



XIX. mendean, industria eta garraiobideek asko aurreratu zuten, lurrinaren erabilerari esker. Asmakuntza ugari egin ziren, eta hiriak ere handitu ziren. Langileen bizimodua, meategietan eta fabriketan oso gogorra zen, matxinadak sortaraziz.



XX. mendean, aurrerapenak arin doaz: elektra-energia, nuklearra, eguzki-indarra, autoak, hegazkina, espaziontziak, ordenadorea...
Baina, gerrak eta pobrezia oraindik ere nagusi dira munduko lurralde askotan.

## Hainbat asmakuntza eta aurkikuntza

• **KRISTO AURRETIK**

**500 000. urtetik:** lehen lanabesak eta armak (egurrez, harriz, hezurrez... eginikoak).
**8 000. urtetik:** lurgintza, abeltzantza, lurrontzigintza, oihalgintza, txalupak...
**3 000. urtetik:** gurpila, goldea, idazkera, metalgintza (urrea, brontzea, burdina...).

• **KRISTO ONDOREN**

**500-1000 urte bitartean:** perra, oinburdina...
**1000-1200 urte bitartean:** ur-errota, haize--errota...
**1200-1500 urte bitartean:** lema, iparrorratza, inprimategia...

**1600-1700 urte bitartean:** mikroskopioa, teleskopioa, Pascalen kalkulagailua, barometroa,...
**1700-1800 urte bitartean:** lurrin-makina, tximistorratza, termometroa, aire beroko globoa...
**1800-1850 urte bitartean:** fotografia, lurrin-ontzia, lurrin-trena, pila eta motor elektrikoa, Morse telegrafoa...
**1850-1900 urte bitartean:** bonbila elektrikoa, telefonoa, fonografoa, zinema, hari gabeko telegrafoa, Pasteur txertoa, leherketa-motorea, gasolinazko autoa...
**1900-1950 urte bitartean:** metroa, hegazkina, soinudun zinema, irratia eta telebista, radarra, bonba atomikoa, ordenagailua.
**1950-1990 urte bitartean:** zentral nuklearrak, bideo-kasetea, konpakt-diskoa, espaziontzia...

# Euskal Herriko mapa




| ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | NAFARROA | LAPURDI | NAFARROA BEHEREA | ZUBEROA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |

| Hiriburua | Hiriburua | Hiriburua | Hiriburua | Hiriburua | Hiriburua | Hiriburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 01001 Gasteiz | 48001 Bilbo | 20001 Donostia | 31000 Iruñea | 64100 Baiona | 64220 Donibane Garazi | 64130 Maule |

## Frantziak, 90 departamendu ditu, 22 eskualdetan bildurik:

-Akitania: 24, 33, 40, 47 eta 64 zenbakidunak.
-Alsazia: 67 eta 68 zenbakidun departamenduak,
-Auvergne: 03, 15, 43 eta 63 zenbakidunak
-Borgonia: 21, 58, 71 eta 89.
-Bretainia: 22, 29, 35 eta 56.
-Champagne-Ardenak: 08, 10, 51 eta 52.
-Erdialdea: 18, 28, 36, 37, 41 eta 45.
-Franche-Comte: 25, 39, 70 eta 90.
-Ile-de-France: 75, 77, 78, 91, 92, 93, 94 eta 95.
-Itsasoz bestaldekoak: 97.1, 97.2, 97.3, 97.4 eta 97.5.
-Korsika: 2A eta 2B.
-Languedoc-Roussillon: 11, 30, 34, 48 eta 66.
-Limousin: 19, 23 eta 87.
-Loiraren Eskualdea: 44, 49, 53, 72 eta 85.
-Lorraine: 54, 55, 57 eta 88.
-Midi-Pyrenees: 09, 12, 31, 32, 46, 65, 81 eta 82.
-Nord-Pas-de-Calais: 59 eta 62.
-Normandia Beherea: 14, 50 eta 61.
-Normandia Garaia: 27 eta 76.
-Picardie: 02, 60 eta 80.
-Poitou-Charentes: 16, 17, 79 eta 86.
-Proventza-Alpeak-Cote d´Azur: 04, 05, 06, 13, 83 eta 84.
-Rodano-Alpeak: 01, 07, 26, 38, 42, 69, 73 eta 74.




**Espainiak,** 50 probintzia ditu, 17 Autonomi Elkartetan bildurik:

Andaluzia: AL, CA, CO, GR, H, J, MA eta SE letradun probintziak.
Aragoa: HU, TE eta Z letradunak.
Asturias: O letraduna.
Baleareak: PM letraduna
Errioxa: LO.
Estremadura: BA eta CC.
Euskadi: BI, SS eta VI.
Galizia: C, LU, OR eta PO.
Gaztela eta Leon: AV, BU, LE, P, SA, SO, SG, VA eta ZA.
Gaztela-Mantxa: AB, CR, CU, GU eta TO.
Kanariak: GC eta TF
Kantabria: S letraduna
Katalunia: B, GI, L eta T.
Madril: M.
Murtzia: MU.
Nafarroa: NA.
Valentzia: A, CS eta V.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa euskal lurraldeak, Frantziako Akitania (Aquitaine) eskualdean, Pyrénées Atlantiques (64) departamenduaren barruan daude.
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, berriz, Espainiako Euskadiko Autonomi Elkartean; eta Nafarroa, azkenik, Espainiako Nafarroako Foru Elkartean daude.

LITUANIA



NORVEGIA



SUEDIA



**EKIALDEKO EUROPAR ESTATUAK**

ARMENIA



AZERBAIDJAN










BIELORRUSIA



ERRUMANIA



ERRUSIA



ESLOVAKIA



GEORGIA



HUNGARIA



MOLDAVIA



POLONIA



TURKIA



TXEKIA



MAZEDONIA



MONAKO



MONTENEGRO



SAN MARINO



SERBIA



VATIKANO



UKRANIA



# Europako Herrien eta Estatuen mapa

**IPARRALDEKO EUROPAR ESTATUAK**

DANIMARKA · ERRESUMA BATUA · ESTONIA · FINLANDIA · IRLANDA · ISLANDIA · LETONIA

**Europako Herriak**

| | | |
|---|---|---|
| AO | Aosta | ITALIAN |
| BR | Bretainia | FRANTZIAN |
| ESK | Eskozia | ERRESUMA BATUAN |
| EH | Euskal Herria | ESPAINIA-FRANTZIAN |
| F | Flandria | BELGIKAN |
| GL | Gales | ERRESUMA BATUAN |
| G | Galizia | ESPAINIAN |
| HK | Kataluniako Herriak | ESPAINIAN |
| KAL | Kalmuk | ERRUSIAN |
| KAR | Karelia | ERRUSIAN |
| KOM | Komi | ERRUSIAN |
| KOR | Korsika | FRANTZIAN |
| LAP | Laponia | SUEDIA-FINLANDIAN |
| OK | Okzitania | FRANTZIAN |
| SAR | Sardinia | ITALIAN |
| TAR | Tartaria | ERRUSIAN |




**MENDEBALEKO EUROPAR ESTATUAK**

ALEMANIA · ANDORRA · AUSTRIA · BELGIKA · ESPAINIA · FRANTZIA · HOLANDA · LIECHTENSTEIN · LUXENBURG · PORTUGAL · SUITZA

**HEGOALDEKO EUROPAR ESTATUAK**

ALBANIA · BOSNIA/HERTZEGOVINA · BULGARIA · ESLOVENIA · GREZIA · ITALIA · KROAZIA · MALTA

# Munduko mapa



2 Bolivia 3 Brasil 4 Txile 5 Kolonbia 6 Paraguay 7 Peru 8 Venezuela



1 Argentina



9 Kanada



10 Kuba



11 Estatu Batuak



12 Mexiko



Munduko mapetan, irudimenezko bi lerro marrazten dira. Gisa honetara, eskualde bat kokatzen laguntzen digute. Hona hemen adibide batzuk:

**Ekuatorea,** Lurra bi zatitan (Ipar hemisferioa eta Hego hemisferioa) banatzen duen lerroa da.

**Tropikoak,** ekuatorearen alde banatan dauden bi lerro paraleloak dira.

**Meridianoak,** Lurrazala inguratzen duten marrak dira, Ipar eta Hego lurburuetatik pasatuz.

**Amerika** oso kontinente handia da, ikaragarri hotza bere bi muturretan (Ipar eta Hegoaldean) eta beroa gainerako lurraldeetan.

Iparramerikako herriak, aberatsak dira (Estatu Batuak, munduko aberatsenetakoa da).

Hegoamerikako herriak, aldiz, oso txiroak dira.






1 Algeria



2 Kamerun

**Afrika** kontinente arrunt lehorra eta beroa da (Sahara desertuak, Afrikako iparralde gehiena hartzen du). Afrikako herriak munduko txiroenen artean daude; hala ere, batzuk aurreratzen ari dira, dauzkaten zoru-aberastasunei esker.



3 Egipto



4 Etiopia



**Munduko hainbat marka:**

Munduko deserturik handiena, **Sahara** da, Afrikan.

Munduko uharterik handiena, **Groenlandia** da, Ozeano Artikoan.

Munduko ibairik luzeena, **Nilo** da, Afrikan: 6.670 km-ko luzera du.

Munduko mendirik altuena, **Everest** da: 8.848 m.



5 Mali 6 Marokko 7 Niger 8 Sudan 9 Txad 10 Tunisia 11 Zaire



1 Afganistan 2 Saudi Arabia 3 Birmania 4 Txina 5 India 6 Indonesia 7 Irak





8 Iran



9 Israel

Munduko lurralde guztietan ez dago klima berdina. Hiru eskualdetan zati daiteke:
**Eskualde tropikala**, ekuatorearen ingurua da; sekulako beroak egiten ditu urte osoan. Ekuatoretik hurbil, oso eurijasa handiak izaten dira. Baina, tropikoetara inguratzean, eguraldia lehorra bihurtzen da.
**Iparburu eta Hegoburu inguruetan**, hotz handia izaten da, urte osoan zehar.
**Eskualde epela** aurreko bi eskualde horien artean aurkitzen da. Udan bero egiten du eta neguan hotz.




E Ekialdea

H Hegoaldea

**Asia** da kontinenterik handiena. Oso klima bereziak ditu: iparraldean oso leku hotzak, eta hegoaldean, berriz, beroak; baditu desertuak eta lurralde hezeak ere. Herri gehienak, pobreak dira.



10 Japonia

**Europa**, Asiaren mendebaldeko luzapen bat besterik ez da.



11 Jordania



12 Libano

**Antartida** biztanlerik gabeko kontinentea da, izotzez estalirik dago. Hegoburua, irudimenezko puntu bat besterik ez da (Iparburua bezala, Ozeano Artikoan, ia erabat izozturik).



13 Pakistan

**Ozeania** milaka uhartez osaturik dago; handiena, Australia da.



14 Siria





15 Tailandia



16 Turkia

**Munduko herriak**

Munduan herri ugari bizi dira. Batzuk, burujabeak dira (beraiek bakarrik har ditzakete erabakiak).
Baina badira beste batzuen menpean bizi direnak (horregatik, munduko zenbait puntutan gerlak eta borrokak gertatzen dira).



1 Australia 2 Papua 3 Zeelanda Berria 4 Samoa 5 Vanuatu 18 Vietnam 17 Errusia

# Erliebea




Euskal Herrian oso paisaia bereziak ikus daitezke: lurralde garaiak (mendialdea); lurralde bajuxeagoak (muinoak edo mendixkak, lautadak eta mesetak), eta itsasertza.

**Mendia,** mota askotakoa izan daiteke: handia, aldapatsua, gailur zorrotzekoa eta haranez inguratua. Baina, txikiagoa ere izan daiteke, biribilagoa. Mendi-lepotik pasatzen bagara, mendia zeharka dezakegu eta haran batetik bestera joan.

**Muinoa** edo **mendixka,** biribila eta garaiera txikikoa izaten da.

Errekak menditxo hauen artean jaisten dira. Errepideek bihurgune ugari dituzte, gora-behera askorekin. Ez da batere erraza horietan zirkulatzea!

Euskal Herriko erliebea




**Meseta bat** guztiz laua da. Hiriak eta errepideak, oro har, ibaien inguruan, oso haran sakonetan, egoten dira. Altura handia duten mesetei "meseta garaiak" deitzen zaie.

**Lautada bat** ere, guztiz laua da, baina mesetak baino altuera txikiagoa izaten du. Ibaiak askoz mantsoago joaten dira sakontasun txikiko haranetan. Errepideetako zirkulazioa errazagoa gertatzen da.

**Itsasertza**, itsasoak lur bazterra ukitzen duen lekua da (itsas bazterra ere deitzen zaio). Lurralde menditsuek, itsasertza harkaiztsua eta ebakia izaten dute. Mesetak, sarritan, itsas amildegian amaitzen dira. Lautadak itsasertz bajua izaten du.